



Arartekoaren 2014R-1557-14 Ebazpena, 2014ko urriaren 22koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio ezgaitasunagatiko salbuespenak aplikatzeko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergen erreklamaturako ordainagirietan, eta kaltetuari dagozkion zenbatekoak itzultzeko.

Aurrekariak

1. Ezgaitasuna duen pertsona baten Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, Erandioko Udalak betearazpen-bidean Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren (TMIZ) zenbatekoa erreklamatu baitio, 2012. eta 2013. ekitaldiei dagokiena. Horrez gainera, Udalak ez dio aplikatu tokiko erakunde horrek berak 2007. urtean aitortu zion ezgaitasunagatiko salbuespena.
2. 2011. urtean, kexagilearen familia lurralde historikoko beste udalerrri batera bizitzera joan zen, eta bera ere beste udalerrri horretan erroldatu zen. Hala ere, horren berri ez zuenez, ez zituen bere egoitzaren datuak eguneratu Trafikoko Erregistroetan. Aitortu duenaren arabera, horren berri izan bezain laster arautu zuen egoera hori.
3. Zerga erreklamatzeko ziotela ikusita, kexagilea harremanetan jarri zen Erandioko Udalarekin, eta ordainagiri horien aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen, 2007. urtean ezgaitasunagatiko salbuespena aitortu zitzaiola oinarri hartuta. Errekurtsio hori ez zen onartu, Erandioko udalerrian Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga-ordenantzak ezartzen baitu salbuespen hori aplikatzeko ezinbesteko baldintza dela ezgaitasuna duen pertsona udalerrian erroldatuta egotea, eta kaltetuak 2011ko urtarrilean eman zuen baja.
4. Erandioko Udalari txostena eskatu genion –ez dugu transkribaturako udal horren argudioa aurrekari hauetan, errepikakorra gerta ez dadin-, eta eskaera horretan igorritako likidazioak baliogabetzeko eta kaltetuari ordaindu ziren zenbatekoak itzultzeko eskatu genion.
5. Tokiko erakundeak egindako likidazioak defendatu zituen emandako erantzunean, eta adierazi zuen ibilgailua eta titularra udalerrri berean erroldatuta



egoteko baldintza ez dela bidegabeki sartu Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen 2 zenbakiko zerga-ordenantzan, baizik eta 2822/1998 Errege Dekretuaren 30. artikuluan ezarritako egoitzaz aldatzeko betebeharrari erantzuten diola (2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena), eta hau adierazten duela: *"Zirkulazio baimen edo lizentziaren titularrak izena, abizenak edo helbidea aldatzen baitu eta horrek ibilgailuaren erregistroko titulartasuna aldatzea ez badakar, hamabost eguneko epean eman behar dio horren berri baimena edo lizentzia eman zuen Trafikoko Buruzagitzari edo helbide berriari dagokion probintziakoari, aldaketa egin den egunetik kontatuta. Trafikoko Buruzagitzak, bere aldetik, Udalei jakinaraziko die aldaketa."*

Era berean, tokiko erakunde horrek adierazi du betekizun hori *"ezarri dugu salbuespenen bikoiztasun edo ugaritasuna saihesteko xedearekin eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikuluan xedatutako Toki-Erakundeen zergak arautzeko eskumenak erabiliz."*

Erandioko Udalak igorritako erantzuna ikusita, egokitzen jo dugu ebazpen hau egitea, hauei jarraiki:

Gogoetak

1. Erandioko Udalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan ezgaitasunagatiko eraketarekin lotuta zer ahalmen dituen aztertzeko, lehenik eta behin, aztertu behar da zer esparru-arauk lotesten duen Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga hori arautzen duen tokiko erakunde hori -7/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa-, bai eta Tokiko Ogasunen esparruko araudia ere.
2. *"Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zerga herriko bideetatik zirkulatzeko gai diren era honetako ibilgailuen titulartasuna, edozein delarik berauen mota eta kategoria, kargatzen duen zuzeneko zerga da, zirkulazio-baimenean agertzen den bizilekua Bizkaiko Kondaira Lurraldeko udalerriri bati dagokionean"* (7/1989 Foru Arauaren 1.1. artikulua). Hori dela eta, ezarpen-udalerrira oraindik Erandioko Udala da, ez baitzen erregistratu Trafikoko Erregistroetan beste udalerriri batera joateagatik kexagilea egoitzaz aldatu zenik .



3. Gai horren inguruan, tokiko erakunde horrek agerian utzi du kexagileak Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko 30. artikulua ezarritako betebeharrak ez duela bete: Trafikoko Agintaritzari 15 eguneko epean gidabaimenaren titularraren egoitza-aldaketa jakinaraztekoa.

Erakunde honek ez du zalantzan jartzen interesdunak ezjakintasunagatik ez zuela egoki jokatu. Egiaz, hori dela eta, Erandioko Udala da oraindik ezarpen-udalerria, eta ez kexagilearen bizilekua den udalerria.

Tokiko erakunde horren iritzi bera dugu, ez zen nahikoa helmuga-udalerriko errolda-zerbitzuan alta ematea, lekualdatzetik eratorritako aldaketa guztiak egoki betetzeko. Izan ere, kaltetuak –ibilgailu baten titularra izateagatik- Trafikoko Probintzia Agintaritzari egoitza berria jakinarazi behar zion. Hala ere, nahiz eta herritarrak ez zuen bere betebeharrak bete, gure ustez, akats horrek ez dio eskumena ematen tokiko erakunde horri, akats hori oinarri hartuta, salbuespena ez aplikatzeko, ezgaitasuna duen pertsona horrek foru-arauak salbuespen horretatik onura ateratzeko ezarri dituen betekizunak betetzen baititu.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da 2822/1998 Errege Dekretuaren 2. artikulua behin-behineko ez-betetzea, kexagileari egozten zaiona, Trafikoko agintariei soilik dagokiela aztertzea eta, hala badagokio, zigortzea.

4. Era berean, tokiko erakunde horrek argudiatu du bikoiztasun-kasuak edo salbuespen-ugaritasunak saihesteko helburuaz ezarri zela salbuespenetik onura ateratzeko ezgaitasuna duen pertsona udalerrian erroldatuta egoteko betebeharrak. Gai horri dagokionez, zehaztu behar da esleitutako helburuak ez lukeela aurreikuspena justifikatuko, baldin eta aurreikuspen horrek tokiko erakunde horren ahalak gehiegikeriaz erabiltzea eragingo balu.

Erandioko Udalak 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 106. artikulua zergen araudiaren esparruan ematen dizkion eskumenak aipatzen ditu arrazoitzat. Agindu horrek hau esaten du hitzez hitz:



“1. Las entidades locales tendrán autonomía para establecer y exigir tributos de acuerdo con lo previsto en la legislación del Estado reguladora de las Haciendas locales y en las leyes que dicten las Comunidades Autónomas en los supuestos expresamente previstos en aquélla.

2. La potestad reglamentaria de las entidades locales en materia tributaria se ejercerá a través de ordenanzas fiscales reguladoras de sus tributos propios y de ordenanzas generales de gestión, recaudación e inspección. Las Corporaciones locales podrán emanar disposiciones interpretativas y aclaratorias de las mismas.

3. Es competencia de las entidades locales la gestión, recaudación e inspección de sus tributos propios, sin perjuicio de las delegaciones que puedan otorgar a favor de las entidades locales de ámbito superior o de las respectivas Comunidades Autónomas, y de las fórmulas de colaboración con otras Entidades locales, con las Comunidades Autónomas o con el Estado, de acuerdo con lo que establezca la legislación del Estado.”

Hau da, tokiko erakundeek zergak ezarri eta eskatzeko autonomia dute, baina Tokiko Ogasunei buruzko legedian eta autonomia-erkidegoek, gure kasuan, lurralde historikoek, emandako arauan aurreikusitakoari jarraiki. Hori dela eta, tokiko erakundeek ezin dute -zerga-ordenantzen bidez- hautsi foru-arau horiek jasotakoa, ez eta mugarik sartu foru-arau horiek jasotako aurreikuspenetan ere.

Gai horri dagokionez, hizpidera ekarri behar dugu 9/2005 Foru Arauak, abenduaren 16koak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoak, 7 artikuluan jasotako araudia. Artikulu horrek hau zehazten du:

“7. artikulua. Udal tributuen ordenamenduaren iturriak

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra toki erakundeei aplikatuko zaie, foru arau honetan jasotako berezitasunak aintzat harturik.

Era berean, udal zergei buruzko foru arauetara eta halakoak garatzeko xedapenetara egokitu beharra izango dute toki erakundeek.

Zerga-ordenantzetan beren-beregi ezartzen denean aplikatuko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzeko ematen diren xedapenak.



2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa."

Hau da, tokiko erakundearen barneko antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen eredura egokitzean ezin da aldatu foru-arauaren eduki materiala.

5. Mendetasunagatiko salbuespenari dagokionez, azpimarratu behar da, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren 2. artikulua arabera, mendetasunari, botere fiskalari eta abarri lotutako betekizunen menpe dagoela, manuak adierazten duen bezala, baina betekizunen artean ez dagoela mendetasuna duen pertsona zergapetzen duen udalerrian errolatuta egotea.

Artikulu horrek honakoa dio hitzez hitz 1. atalean:

"1. Zerga ordaintzetik salbuetsita daude: (...)

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta desgaitasuna duen pertsona baten izenean matrikulatuta badaude.

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere urrituek eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Ilatz-zati honetan xedatutakoaren ondoriotarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:



a') %33 eta %65 bitarteko desgaitasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten pertsonak; halakotzat joko dira minusbaliotasun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

b') %65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago."

Era berean, artikuluko horretako 2. paragrafoan, foru-arauak haxe ezartzen du:

"2. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko e) eta g) letretan azaldutako salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dute, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoa adierazi behar dituzte. Salbuespena adierazitakoan, Udal Administrazioak hori frogatzen duen agiria emango du.

Aurreko 1. idatz-zatiko e) letrako bigarren paragrafoan ezarritako salbuespenari dagokionez, interesatuak urritasunaren eta, behar denean, mugitu ezintasunaren ziurtagiria (erakunde eskudunak emana) aurkeztu behar du eta ibilgailua zertarako erabiltzen duen frogatu behar dio Zerga ezartzen dion udalari, eta frogatu ere hark ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera."

Hau da, zergapetzen duen udalak bere ordenantza fiskalaren bidez salbuespen hori finkatzerakoan daukan ahalmena ibilgailuaren erabilera justifikatu behar den modura murrizten da; izan ere, mendetasuna eta mugikortasun urria egiaztatzen dituen agiriri dagokionez, toki-erakundeek ez daukate egoera horiek aitortzeko eskudantziarik. Nolanahi ere, mugikortasun urrituak, mendetasunaren egiaztapenak eta ibilgailuaren erabileraren justifikazioak ez daukate zerikusirik erroldatzearekin.



Erreklamatzailerak Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren 2.1.e artikulua jasotzen dituen betekizunak (% 75eko mendetasuna eta 10,75 ZIFeko potentzia fiskala daukan ibilgailua) betetzen ditu. Beraz, gure aburuz, bidezkoa da igorritako likidazioak errebokatzea eta, hala balegokio, ordaindu diren kopuruak itzultzea. (Oharra: ZIF: Zaldi-Indar Fiskala)

6. Horri dagokionez, egokitzen jo dugu mahai gainean jartzea ezintasun batek ahalmen ekonomiko urritzen duela, ez bakarrik pairatzen duenaren ahalmena, baita bere familia ingurunearena ere: aurrekoak, ezkontideak eta ondorengoak, haiek baitira egunerokotasunean euren errenta erreal eskuragarria mugatzen duten gastu gehigarriei aurre egin behar dietenak. Zentzu horretan, ezgaitasunen bat duten pertsonak gizartean sartzeko eta bertan normaltasunez parte hartzeko ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dute egunerokotasunean, beraz, desiragarria da neurriek ahalegin hori kontuan hartzea. Era berean, ezin dugu alde batera utzi botere publikoei dagokiela beharrezkoak diren neurriak hartzea eta baldintzak sustatzea gizabanakoen eta taldeen berdintasuna erreal eta eraginkorra izan dadila.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Erandioko Udalak igorritako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainagiriak berrikustea, ezgaitasunagatik salbuespena aplikatzea eta kaltetuari ordaindutako zenbatekoak itzultzea, herritar horrek ez baitio utzi 7/1989 Foru Arauaren, ekainaren 30ekoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga hori arautzen duenaren, 2.1.e. artikulua ezarritakoa betetzeari, ezgaitasunagatiko salbuespenetik onura ateratzeko.

Erandioko Udalak 2 zenbakiko zerga-ordenantzatik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duenetik, udalerrian ibilgailua eta titularra batera erroldatuta egon behar izateko betekizuna kentzea, ezgaitasunagatiko salbuespen horri onura ateratzeko.